

BAT
EGUN BATEAN EKIDAZUN ERROMERIA ZAN

Ekidazu, astoen herrialdeko animalia guztiak kalean daude, kantari eta pozik. Bost asto musikarik bakoitzak beren soinu tresnekin musika jotzen dute: Arantza, asteme gazteak bibolina eta Astonio asto nagusiak eskusoinua. Beste hiru astok ere musika jotzen dute haiekin batera. Bitartean, Fausto dantzan ari da Bea ardiarekin, Azeria oiloekin kantari, beste asto batzuk salto akrobatikoak egiten, hankaluzeekin eta monozikloarekin.

Prontxio otsoa eta Bea ardia bazter batean daude isilik, begira. Astoek Ekidazuri buruzko kanta alai bat kantatzen dute, betikoa. Haien izaera askea azaltzen dute, baikorra, abegitsua. Letrak ere mundu oso bat azaltzen du, gizatiarra, utopiatik hurbil dagoena.

DENAK:

Hau da Ekidazu
gogora zazu
asto libre musikarien aberria.
Hau da Ekidazu
sinets ezazu
bihotzean daramagu mundu berria

Hau da Ekidazu
entzun eidazu
dantzan eta kantan da gure alegria.
Hau da Ekidazu
heldu eistazu
baltsean helduko zaigu egunsentia.

FAUSTO: *(Pozik)* Lagunok, berri on bat eman behar dizuet. Heldu da azkenik eguna. Gaur bertan aterako naiz munduan zehar bidaiatzera, abentura berrien bila.

ASTO 1: Baina Fausto? Joan behar al duzu dagoeneko?

FAUSTO: Badakizue, dabilen harriari ez zaio goroldioa lotzen.

ASTOAK: *(Koroan leloa errepikatuz bezala)* Eta ur irakinean ez da eulia pausatzen.

ASTOAK: Eta zuhaitz betakorra ez du inork ebakitzen.

ASTO 1: Buruz dakigu dagoeneko Fausto.

ASTO 2: Beti lelo bera bidai bati ekin baino lehen.

FAUSTO: (*Ironiarekin*) Faltan sumatuko zaituztet benetan...

OILOAK: Ka ka ka kanpoan zaudelarik hemengo pentsamenduan eta herrira itzuli orduko ko ko ko urruneko ko ko parajeak buruan.

(*Faustok sorbaldak igotzen ditu irribarretsu. Bakarri geratzen da*)

FAUSTO: Ez al dugu kantatuko azken kanta... *Kitarra jotzen hasten da.*

Fausto eszenan bakarrik.

FAUSTO: (*Lehenengo planoan*) Aurki alde egin behar dut baina argi izan, horrenbeste kanta eta soinu entzuten den herririk ez dagoela mundu zabalean.

Bat-batean animalia guztiak ateratzen dira eta ustegabeen kantatzen hasten dira, Faustoren agurreko kanta.

DENAK:

Fausto astoa,
lagun zintzoa,
laster badoa
munduz mundu.
Nora zoazen
argi ta ozen,
lasai gera gaitezen,
kontaiguzu.

ASTO 1: Kontaiguzu nora joango zaren, Fausto.

FAUSTO: Kontatu ez Sole, kantatu, kantatu!

(*Kantari hasten da. Mapa handi batean markatzen du bere ibilbidea satorrak*) **KANTA**

Lehenago lana
agurtu danak

eta prestatu plana
puntutz puntu.

Bigarrenean,
Hoilanda aldean
bizikleta aldean
eta bi katu.

Hirugarrena,
ez da herrena,
Manuel Iradierrena
eginen dut.
Hauts eta zabor,
ez geratu hor!
Desertu lehor
da Gamelun

Laugarren ostera
Portubalera,
goitik behera
lekuz leku.
Itsaslabarrak
ta laguntzarrak
kanta arte oilarrak
kukurruku.

.
Untxina zaharra,
ez da zakarra,
hegaz dabil antzarra
neguz negu.

Seigarrenean
Al Kaio aldean,
piramidean
zerua ilun.

Zazpigarrena
gogokoena
hargatik da azkena,

sinets zazu.
Popabistanen
ni naiz izanen
ta biluzik etzanen,
ez naiz zaldun.

Agur, agur...

Azeriak eta oiloek Faustoren kantaren leloa errepikatzen dute Animalia guztiak kantatzen duten bitartean Faustok bizikleta hartu eta alde egiten du Ekidazutik.

FAUSTO (*Urruntzen doala*): Aguur!

DENAK: (*Eskuarekin egiten dute eta kantatzen jarraitu*) Agur, agur
Fausto!

Faustok alde egiten du: Bea eta Prontxiok Faustoren bidaia dute mintzagai bazter batean.

PRONTXIO: Hau bai asto ipurtarina. Ez da laster iritsiko bertan goxo egingo duen eguna.

BEA: (*Burlaka*) Asto ipurtarina? Aukeran hobe asto ipurtarina otso ipurterrea baino, beti marmarrean eta kexaka.

PRONTXIO : Zer egingo zenuke zuk Bea holako bidai batean?

BEA : (*Maitakor*) Ai Prontxio, imajinatu gu biok bakarrik, hondartza batean, aparte-apartean...

PRONTXIO: Auuuuuuuuuuu ... BEA: Beeeeeeeee ...

PRONTXIO: Hemen baino hobeto ez gaude inon eta. Gainera Bea, eguzkiaren beroarekin laster erreko litzateke zure larru zuri hori. Arkume errearen planta hartuko zenuke segituan.

BEA: (*Haserre alde egiten duten bitartean*) Zuk bai naukazula erre-errea, otso egoskor hori.

BI
DIRA, DIRA, PIZTIAK DIRA

Halako batean orro bat entzungo da animalia guztien harridurarako.

ASTO 1: Zer da hori?

Zoramen egoera

ASTOAK: Kontu hau ez zait batere gustatzen. Ekaitza datorrela ematen du. Korrika goazen aterpera.

Orro handiagoa entzuten da. Gero beste bat eta beste bat. Animalia guztiak izkutatu egingo dira ikaraturik, arrapaladan.

ASTONIO: *(Pentsakor)* Honek ez du batere itxura onik.

ARANTZA: Ba ez dirudi ekaitza datorrenik.

ASTONIO: *(Begibitartea zimurtzen du)* Zerutik ez behintzat. Baina zarata hau ezaguna egiten zait, eta ez da parte onekoa.

ARANTZA: *(Astonioren hitzekin kezkatutik)* Lasai Astonio datorrenari aurre egingo diogu.

ASTONIO: Baina susmo txarrak ditut.
(Hurbildu eta belarrira) Piztiagako kiratsa hartzen diot honi.

ARANTZA: Piztiaga??!!

ASTONIO: Eta ez dirudi azken boladan umoreko daudenik. Elementu ederrak dira haiek ernegatzen direnean...

ARANTZA: Ernegatzen direnean?

TOK, TOK, TOK.

ASTONIO - ARANTZA: Erne!

Satorra ateratzen da estolda zulotik.

SATUR: Piztiaga aldetik datoz notiziak...

ARANTZA: *(Estoldako tapa ixten du satorra barrura sartuz)* Ai, Satur satorra, beti garai txarrean.

SATUR: *(Berriro ateratzen da)*. Begira, begira zer dakarren gaur “Piztiaga times”-ek. Lehen orrialdean Ekidazu aipatzen dute.
(Egunkaria ateratzen du eta irakurtzen hasten da)
“Piztiaga & Co. azkenik Ekidazun” Eta barruan...

Arantzak kentzen dio aldizkaria eta estalkia jartzen dio zakarrontsiari

TOK, TOK, TOK

SATUR : Berri bitxia ez denik ezin esan!

Satorra lurpean sartzen da berriro. Astoniok eta Arantzak egunkariari begiratzen diote, aho bete hortz. Aldizkaria irakurtzen dute ...

ARANTZA.: “Piztiaga & Co. munduko merkatalgunerik handiena aurki zabalduko dute Ekidazun”.

Iragarkia. Piztiagakoak (Lucky eta Goril) agertzen dira.

LUCKY : *(Heziketa gehiegiz, astun)* Alkate jauna, alkate andrea, ...

ARANTZA: *(Ahapeka)* Baina zer alkate eta zer alkateondo...

LUCKY : Urte askotarako. Ekidazuko agintari gorenak zaretan legez aurkeztuko dizuet: Piztiaga & Co. konpainiako jaun eta jabea den Leon Piztiaga jr.!

Leontzioren agerpena

LEONTZIO:Kaixo laidys and gendelmans! Zuen aginduetara. Entzutea banuen toki zoragarria zela Ekidazu, izan ere ezagunak dira Abereta planeta osoan bertoko paraje ederrak eta asto zintzo eta langileak. Inbidiagarri izango zarete hemendik aurrera. Halako paradisuari geure merkatalgunerik handi eta dotoreena jartzea erabaki baitu Piztiaga & Co-k., Piztiaga & Co, mundua zure esku! Lan egin gurekin eta irabazi dirua! Eta erosi nahi duzun guztia. Gehiago erosi

nahi duzula? Gehiago lan egin eta erosi mundu osoa. Ez geratu atzean, Piztiaga & Co, mundua zure esku!

ARANTZA: Mundua gure esku? Baina guk ez dugu ezer eskatu ta!

LEONTZIO: Bizitzari ahalik eta gehien eskatu behar zaio. (*Zuzenean begiratzeko dio Arantzari*) Gainera, asteme gaztea, aurrerabidea ez da eskatzen. Aurrerabidea etorri badator edo hartzen duzu edo galtutako tren.

ASTONIO: (*Zalantzi*) Merkatalgunerik handiena Ekidazun? Ez dakit, ez dakit. Eta horrek zer onik ekarriko digu?

LEONTZIO: Dena. Animalien munduko edozein bazterretan egindako edozer gauza hemen eskura! Bostotsoneko belardi artifizialeko txomin-belar sintetiko paregabea k1, k2, eta k3 bitaminekin osatua eta Putroiten egindako autoak, telebistak, ...

ASTONIO: (*Ahapeka*) Putroiteko autoak, telebistak?

LEONTZIO: Bai. Begira, begira, hementxe duzu gure katalogo berria, hau dena zure esku. (*Katalogo luze bat zabaltzen du*) Eta opari, euliak usatzeko buztan automatiko hauxe! Interaktiboa, irratia eta DVDA inkorporaturik.

(*Ahots doinua aldatuz*) Baina, hau dena lortzeko hitzarmen hau sinatu beharko ...

Katalogoa kendu eskuetatik eta hitzarmen dokumentua eskaintzen dio.

ARANTZA: (*Hitzarmen papera lurrera botatzeaz batera ...*) Sinatu zer? Ez dakit, susmo txarra hartzen diot honi Astonio.

ASTONIO: Ixo Arantza! Ez izan mesfidati. Agian zerbait on ere ekarriko du honek denak, beharbada...

ARANTZA: Ba hitz egin dezagun beste astokideekin.

Arantza eta Astonio herrirantz abiatzen dira eta Lucky, hitzarmen papera hartu ondoren Gorilekin batera jarraitzen die atzetik.

Leontzio publikoari begira jartzen da eta kantatzen hasi. Kanta oso komertziala da eta jendea konbentzitzen du. Ekidazuko biztanle guztiak bere atzetik doazela dirudi.

LEONTZIO: (*Kantari*)...

Piztiagako astoa
alda zazu looka,
modatik kanpo zaude
ezin duzu uka.
Progresoa badator,
hasi da oihuka:
tinta zazu ilea,
jar zazu peluka.

Aspertuta bazaude
eros telebista,
liburuak letzeko
hona largabista;
makulua haurrentzat,
zarrentzat txirrista,
huskeriak saltzeko
nauzue artista.

Jende guztiak nahi du
egon guztiz fashion,
berdin Ekidazun da
hurruneko Zookion.
Gurean daukazue
dena merke ta on,
biba Piztiaga eta
biba gure Leon!

Horrenbeste argi ta
horrenbeste porlan,
aurrerabidea ez da
lortzen edozelan,
neuk esango dizuet
sekretua zein dan,
hiru hitz soilik dira,
hiru hitz: lan da lan.

*Kantaen amaierarekin batera alde egiten du Leontzio eta berarekin koroak
egin dizkioten astoak.*

Arantza herritik ateratzen da, bakarrik dago, pentsakor.

ARANTZA: *(Bere golkorako)* Denek zinatute hitzarmena, zertarako? Dirua irabazteko. Dirua zertarako? Mundu osoa erosteko. Zertarako? Diru gehiago behar izateko. Diru gehiago zertarako? ... Lagunekin egoteko denborarik ez izateko. Beti lan da lan! Kaka zaharra!

Lucky lukia eta Tximinoa hurbiltzen zaizkio, harro.

LUCKY: Hara neskatila pixpirina. Zer darabilzu horren uste txarrekin?
(Eskua koktzean jartzen dio)

ARANTZA: Nik ez dut uste txarrik. Zuenak dira uste txarrak...

LUCKY: Baina onurak besterik ez dakartzagu eta.

ARANTZA: Onurak? Zeintzuk?

LUCKY: Bide berriak, eraikin berriak, argi berriak. Oparotasuna, neska!

ARANTZA: *(Mesfidati)* Oparotasuna...

LUCKY: Baina zer uste du astakilo honek! Horren astakilo itsusia izanda hobe zenuke datorrenari men egitea. Baina Ekidazuko astakilo dantzariak beti egoskor.

Begirakunea egiten dio Arantzak eta aldendu egiten da.

LUCKY: *(Nabarmen)* Ez al zaizu gure etorrera atsegin? Ez al duzu dantzatu behar? Egiguzu ongi etorri dantza bat, ziur badakizula dantza hauxe. Ekidazun oso ezaguna zen garai batean...

Luckyk keinua egiten dio buruarekin tximinoari. Arantza beldur da.

LUCKY: Ea ba astotxoa, ez al zaizu dantza atsegin? Dantzatzeke diotsut, dantza!

Lucky eta tximinoa kantatzen hasten dira astotxoaren kanta, Arantzari burlaka eta joka.

LUCKY:

Astotxoa, gure astotxoa,
astotxoa, arrantzarik ez.
Buruan joko zaitut.
Buruan, buruan, a!
Astotxoa, gure astotxoa,

astotxoa, arrantzarik ez.
Buruan eta begian joko zaitut,
buruan, begian, sudurrean,
ahoa, okotzean,
belarrian, lepoan,
besoan...

HIRU
IRITSI DA AURRERABIDEA

Piztiaga & Co.-ko langileak ageri dira taula gainean. Tximuak dira eta zuriz jantzita doaz, pieza bakarreko lan jantziekin. Bizkarrean Piztiaga & Co.ko anagrama daramate. Kanpotik ekarriko dituzte osagaiak eta ziztu bizian eraikiko dute merkatalgunea, goizetik gauera.

LAU
TXIN-TXIN TXIN-TXIN DIRUAREN HOTSA

Merkatalgunearen beste aldean Arantza dago. Harriduraz begiratzen dio eraikinari. Bat-batean asto bat hurreratzen zaio.

KIRTEN: Arantza, merkatalgune hau sekulako pagotsa da!

ARANTZA: Norentzat?

KIRTEN: Guretzat neska! Begira, begira zer erosi dudan, (*poltsa barrua erakutsi eta ...*) kili-kili egiteko makina.

ARANTZA: Baina hori ez al da zukugailua?

KIRTEN: Bai, horixe esan didate hasieran. Baina dendariari zukugailurik ez dudala behar esan diodanean kili-kiliak egiteko ere balio duela esan dit . Eta halaxe da! Begira... kar, kar, kar, ...
(*Ikuslegoari*) Zer, frogatu nahi? Ba erosi!

ARANTZA: (*Irribarretsu*) Kirten, ziria sartu dizute bete betean.

KIRTEN: Ziria niri? Kirteni ziria sartzen ausartzen denik ez da oraindik jaiio!!

Bigarren asto bat (Sole) hurreratu zaio Arantzari estulka.

ARANTZA: Zer duzu?

SOLE: Kaixo.

ARANTZA: Kraskatuta daukazu ahotsa. Katarroa al daukazu?

SOLE: Bai zera. Orro ikastarotik nator. Badira bi aste hasi nintzela.

KIRTEN: Bai, eta zer moduz?

SOLE: Oso interesgarria. Lehoiek horren ondo egiten dute. Etorkizuneko hizkuntza izango da orroa.

KIRTEN: Egia da, jadanik kukurruku egitea, miau egitea, arrantza egitea antzinako gauzak dira...

ARANTZA: Bai zera! Arrantzarik gabeko astoa, zaporerik gabeko laztoa.

KIRTEN – ARANTZA: Ba! Karroza!

SOLE: Hori asto arrunten kontua da. Orain animala dotoreok orro egiten dugu. Begira, asko ikasi dut... *(Orro antzeko bat egiten du)* Orhaaaa!

KIRTEN: Sole, Sole! Ez dirudi asko ikasi duzunik.

SOLE: *(Goibel)* Beti ateratzen zait arrantza baldar hau...

ARANTZA: Baina, zure arrantza hori oso atsegina da...

SOLE: Ez dakit ba...

Kirtenek supermerkatuko kutxako faktura roilo batekin ari da aztoratuta.

KIRTEN: Arantza,

ARANTZA: Zer?

KIRTEN: Lagunduko didazu kontuak egiten?

SOLE: Zer erosi duzu ba!

KIRTEN: Ba, 500 kilo patata frijitu eta larre-donutsak., lazto-hanburgesak eta pizzak 3 tona, pentsu-bonboi eta pastelak, eta txokolatinak 7 kamioi bete. Eta jakina hori dena jan eta gero argaltzeko tramankulu hau, badakizu, ohean etzanda abdominalak egiteko horietariko.

ARANTZA: Zer dela eta hainbeste erosketa?

KIRTEN: Egia aitortu behar badizuet ... alpapa kontserba pota bat erostera joan naiz soilik. Baina den-dena zegoen merke eta aukeran. Gauza guztiek esaten zidaten: Kirten eros nazazu! Kirten eros nazazu! ... eta Kirtenek dena erosi.

SOLE: Eta zer egingo duzu gauza horiekin guztiekin?

KIRTEN: (*Ikuslegoari*) Zuek zer egingo zenukete? Ba, jan! Begira zein bizkorak diren hemengo umeak.

SOLE: Laguntza behar baduzu esan.

KIRTEN: Tira ba! Gero elkartuko gara eta txokolatada erraldoi bat egingo dugu, bai?

ARANTZA: Urteko egun guztietan txokolatada eginda ere ez zenukete horrenbeste jango eta.

KIRTEN: Zuk zer dakizu! (*Zilborra laztanduz*).

ARANTZA: Okerrena gehiena galdu egingo zaizula...

SOLE - KIRTEN: Galdu?

Astonio agertzen da eta egoera apurtzen du.

ASTONIO : Aupa astokideok!

DENAK: Astonio!

ARANTZA: Hara! Gure xirulajole aparta! Zer moduz lanean?

ASTONIO: Ahaztu dezagun lana. Atera musika-tresnak. Gora Ekidazu!
Gora festa!

ARANTZA: Hori da! Akabo penak! Egin dezagun arrantza. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen.

ASTONIO. (*Musikariei sarrera emanaz*) Bat, bi, hiru ta ...

Arantzak, Astoniok eta asto guztiek musika jotzen dute.

BOST EZER EZ DA BERDIN

Bi planotan garatzen da ekintza. Alde batetik lantegi barruan gertatzen dena eta bestetik lantegi kanpoan. Barruan langileek euren erritmoan egiten dute lan, gehiegi behartu gabe. Gehien-gehienak astoak dira. Langileak erritmo lasaian eta berriketan ari dira Lucky azeria sartzen denean.

LUCKY: *(Serio)* Alferrak. Ez duzue ezertarako balio. Egunez ilargia eta itsasoan euria bezain alferrekoak zarete. Entzuna nuen astoa denik eta animaliarik alferrena dela.

ASTO 1: Nik dakidala ez dago astoa bezain animalia langilerik.

ASTOAK: *(Zurrumurruak)* Zer dio horrek, lana baino ez dugu egiten eta!

LUCKY: Langileak? Lantegia zabaldu genuenetik esker txarra besterik ez dut jaso zuengandik. Nola erantzun diozue nik emandako konfiantzari?

SOLE: Esklaboen pare lan eginez.

ASTOAK: *(Zurrumurruak)* Horixe Sole! Ez gaitezen gelditu besoak gurutzaturik.

LUCKY: Bai zera! Lanorduetan musika joz. Inozoa nintzelakoan ala?

ASTO 1: Ez ordea.

LUCKY: Argi izan. Zelatan izango nauzue gau eta egun. Ezin da ezer egin Ekidazun nik jakin gabe..

Langileek harriduraz begirutzen diote Luckyri.

ASTONIO: Birritan esan beharrik ez duzu. Ageri-agerian dago...

KIRTEN: Arrazoia duzu, nik etxeko komunean harrapatu nuen lehengunean, komuneko zulotik zelatan

Langileen artean zurrumurrua zabaltzen da.

LUCKY: Hara! Oilar izateko jaio zen astoa. Hurbil zaitez Astonio. Zurekin hitz egin beharra daukat.

ASTOAK: *(Zurrumurruak)* Lasai Astonio zurekin joango gara denok ...

LUCKY: Eta zuek lanera!

Denak ikaraturik lanean hasten dira, bitartean lehen planoan Lucky eta Astonio.

LUCKY: Eseri Astonio. Gure lantegian hainbat neurri hartzea erabaki dut: Lehendabizikoa, lan emaitzetan arreta jartzea. Begira, irakurri.

Piztiaga Times egunkaria ematen dio.

ASTONIO: New Pork 90, Zookio 80.

LUCKY: Zookio eta New Porkeko lantokietako lan emaitzak. Ondotik hirugarrena, geurea, irakurri.

ASTONIO: Ekidazu %30.

LUCKY: 30 besterik ez, lotsagarria. Beraien markara iristea da nire erronka, zuon erronka...

ASTONIO: Hori ezinezkoa da!!!

LUCKY: Ez dago ezer ezinezkorik "Piztiaga & Co." konpainian. Besteen parera iritsiko gara. Horretarako, lanorduak gehituko ditut behar beste. Eta arrantza galaraziko dut. Ezingo duzue kantatu lantegi honetako langile zareten bitartean.

ASTONIO: Kanpoan bai ordea.

LUCKY: Ez barruan ez kanpoan. Akabo beraz, kantak eta arrantzak.
Akabo musika tresnak.

ASTONIO: Hori ez da hitzartu genuena...

LUCKY: Hitzartu, hitzartu... Hitzak haizeak eramaten ditu.

ASTONIO : Eta sinatutako papera?

Luckyk alde egiten du erantzun gabe ...

ASTONIO: *(Larri, larri lantegirantz)* Azeri honek ez daki zein burugogor
garen astook! Lagunok, lagunok!!!

KIRTEN: Zer gertatu da Astonio? Zer esan dizu Luckyk?

ASTONIO: Erakutzi diezaiogun azeriari zer garen ekidazuarrok.

KIRTEN: bai horixe! Har ditzagun musika tresnak!

SOLE: Jo dezagun denok batera!

KIRTEN Entzun, entzun erritmo berri hau ... *(Erratzarekin jotzen du
erritmoa beste astoak tresna ezberdinekin hurbiltzen zaizkoin
bitartean)*

DENAK: Zoragarria!!

KIRTEA Ea ba, denok batera! Bat, bi, bat, bi, hiru ta ...

*Musika-tresnak inprobisatuekin joka hasiko dira. Halako batean, Lucky
itzuliko da eta bete-bete harrapatuko ditu.*

LUCKY: *(Sutan)* Astonio, zer da hau?

ASTONIO: Atsedan aldi bat, besterik ez. Horretarako eskubidea badugula
uste dut.

LUCKY: *(Mehatxu eginez)* Lurra bigunago eta harra barrurago. Neuk
aterako dizut zuri eskubidea. *(Haserre)* Entzun denak: Lan emaitzak
100ra heldu arte ez da hemendik arimarik aterako. Astonio zu zeu
erantzule.

ASTONIO: Hau ez da bidezkoa!!!

LUCKY: Bidezkoa agindutakoa betetzea da. Beraz isildu eta ekiozue lanari!!

100ko emaitza lortu arte lanean ari dira martxa azkarrean eta orduantxe:

LUCKY : Ikusten duzue? Motibazio pixka batekin dena lor daiteke! Joan zaitezke etxera.

KIRTEN: Goazen Astonio ...

Langileak lantokitik ateratzen dira. Astonio eta Lucky bakarrik geratu dira lantokian.

LUCKY: Eta zuk Astonio, bete al duzu gaurko lana?

ASTONIO: Bai, den-dena jarri dut, begira.

LUCKY: Beheko potu honek hautsa dauka...

Azeriak eskuarekin apalategiko poto guztiak botatzen ditu.

ASTONIO : Ez!!

LUCKY : O! Lana bukatu arte jarraitu beharko duzu. Agur Astonio!

*Astonio bakarrik geratu da lantokian
Bitartean Arantzak bakarrik dago kalean. Satur ateratzen zaio estolda
zulotik. TOK, TOK, TOK.*

SATUR: Piztiaga aldetik dator notizia...

ARANTZA: Satur, eskerrak agertu zarela. Non daude besteak.

SATUR: Entzun, entzun zer irakurri dudan Le Mond animal-n: Lanaren eraginez kantatzeko adorea ere galdu duzuela azkenik Ekidazuarrok. Eta lege berria ezarri dizuetela: Debekaturik dago dagoeneko Ekidazun arrantza egitea eta musika tresnen jabe izatea.

ARANTZA: Eta hori onartu egin dute denek?

SATUR: Derrigorrean. Gainera, Astonio bera zigorturik geratu da lantegian. Lucky bere onetik aterata dabil nahikoa lan egiten ez duzuelako astook.

ARANTZA: Hau ez da Ekidazu.

SATUR: Bada beste notizia garrantzitsu bat! Piztiagako kirol nazionala. Goril Amstrong-ek munduko piztistatic errekor berria ezarri du, ostera ere.

ARANTZA: *(Saturren diskurtsoa ahalik eta lehen moztuz)*. Horixe besterik ez nuen buruan...

Saturrek alde egiten du. Arantza bakarrik geratzen da. Lantoki barruan lanean jarraitzen du Astoniok.

SEI MAITALEAK

Arantzak bibolina ateratzen du eta jotzen hasten da.

ARANTZA: Musika jotzea debekaturik? Nirekin jai daukate. *(Biolina jotzen hasten da)*

Arantza biolina jotzen dagoen bitartean Leontzio agertuko da. Leontzio entzuten geratuko da, liluraturik. Kanta bukatzeaz dagoela Tximu agertuko da. Tximu Arantzari hurbilduko zaio eta agiri bat erakutsiko dio (enroilaturik darama, Erdi Arokoen antzekoa).

TXIMU: *(Ahots metalikoa)* Piztiaga jaun txit gorenaren aginduz, debekaturik dago edozelako musika-tresnak edukitzea.

ARANTZA: Ja! Niri ez etorri horrelako kontuekin, ni ez nago zuen mende.

Tximuk biolina lurrera bota eta besotik helduko du eramateko keinua eginez. Leontzio zegoen ametsetik esnatuko da.

LEONTZIO: *(Serio)* Goril utzi, utzi hori nire esku, nik konponduko dut hau dena. Zu joan zaitez piztistatikean entrenatzera.

Tximuk, harrituta, alde egingo du. Leontzio Arantzarekin geratuko da bakarrik. Bibolina lurretik hartu eta jotzen saiatoko da, baina oso erreza ez dela ohartzean segituan luzatuko dio.

LEONTZIO: *(Goxo)* Tori, segi jotzen mezedez.

ARANTZA: Um. *(Eta biolina joz kantari)*

Joan dira garairik onenak,
isildu erreka bazterrak.
Joan dira gaurik epelenak,
haserre daude adiskideak.

Ez da aurten kukurik aditu,
luze dirau udazkenak.
Ez da aurten gutunik iritsi,
ahaztu dira oroitzapenak.

Joan dira, joan dira...

Joan dira garairik onenak,
haserre daude adiskideak.

LEONTZIO: *(Txaloka)* Ederra benetan.

ARANTZA: *(Bere golkorako. Biolina bularraren kontra estutzen du eta atzealdera begiratu)* Ba holakoa zen gure Ekidazu zuek etorri aurretik. Sarritan pentsatzen dut zer aurkituko duen Faustok itzuliko denean...

LEONTZIO: *(Ezjakinez eta jeloskor)* Faustok?

ARANTZA: Egia da. Ez duzu ezagutzen nire anaia. Munduan barrena dabil bidaiatzen. Geratzen zaidan lagun bakarra...

LEONTZIO: Bakarra ez. Hemen ondokoa kontuan hartu behintzat.

Arantzak Leontzioren sorbaldan jartzen du burua eta begiak itxi. Leontzio egoerarekin beldurtu egiten da.

LEONTZIO: Arantza?

ARANTZA: Zer?

LEONTZIO: Zera aitortu behar dizut: Arantza nik ..., Arantza nik ..., Arantza nik mai ... nik alde egin behar du berandu egiten ari zait. Kaka zaharra!!!

ARANTZA: Eee, hurrengo arte, Leontzio.

LEONTZIO: Leontzio?

ARANTZA: Niretzat bai. *(Begiarekin keinu eginez)* Leon Piztiaga Junior baino politagoa bada behinik behin.

LEONTZIO: Baliteke Arrantza. Leontzio, Arrantza ...

Leontziok irribarre egiten dio burlati eta musu bat botatzen dio aldendu baino lehen.

ZAZPI
AZERIKERIA

Arantzak bakarrik dago kalean. Bitartean lantegian ...

ASTONIO: Pikutara Pztiaga and co., azeri horrek ez nau menperatuko!

(Ordurarte egindako lana bota eta bertan behera uzten du, zalapartarekina Lucky hurreratzen zaio).

LUCKY: Zertan ari zara Astonio?

ASTONIO: Tximistak erreko al zaitu Lucky barrabasa!!

LUCKY: Lasai Astonio hitz egin dezagun *(Lepotik heltzen du)*. Utzazu lan hori eta zatoz, zatoz nirekin, zerbait hartuko dugu eta hitz egin, lagunen moduan.

Agur Astonio, infernuan ikusiko gara!!!

Astonio eta Lucky desagertu egiten dira.

ASTONIO: *(Arrantza zoli eta latz bat)*.

Arantza garrasia entzun eta ikaratu egingo da.

ARANTZA: *(Izukurik)* Astonio...

Arantza lantegira sartzen da Astoniorengana hurreratuko asmoz. Beste aldetik Leontzio agetzen da.

LEONTZIO: *(Ikuslegoari zuzenean erantzunen bila)* Zer izan da zarata hori? Zer gertatu da? Nondik sortu da?

Bat batean Luckyren ahotza entzuten da ...

LUCKY: Hiltzailea! Hiltzailea!

Lucky eta Goril, Arantza besoetatik helduta daukatelarik lantegitik agertzen dira.

LUCKY: Hiltzailea! Hiltzailea!

LEONTZIO: Arantza!? Zer arraio gertatzen da hemen, Lucky?

LUCKY: Arantza lantegia suntsitzen ahalegindu dela.

ARANTZA: Nik ez dut ezer egin.

LEONTZIO: Nola froga dezakezu hori?

LUCKY: Gauza jakina da astakilo honek gure lantegiari dion gorrotoa.

LEONTZIO: Hori ez da froga nahikoa!

LUCKY: Astonio zintzoak harrapatu du.

LEONTZIO: Astonio? Ba etor dadila eta aitor dezala.

LUCKY: Ez da posible.

LEONTZIO: Zergatik?

LUCKY: Astakilo krudela ez da errukitu ezta Astonio zaharraz ere.

LEONTZIO: Zer esan nahi duzu horrekin?

LUCKY: Akabatu egin du. Gupidagabea!

ARANTZA: Hori ez da egia!!

LEONTZIO: Hori ezin da egia izan. Gezurtero alhena zara Lucky

LUCKY: Begien bistakoa ukatu nahian ala? (*Ironiaz*) Eguzki epeletan hazi du berori aitatzok eta... Zorrotz jokatu behar da astakirten hauekin. Hilketan hau ez da ordainik gabe geratuko. Goril eraman ezazu!

LEONTZIO: Geldi Goril!! Hemen nik neuk agintzen dut oraindik. Aska ezazu Arantza!

LUCKY: *Leontzio moztuz*) Hemendik aurrera ez, lehoikumetxo! Eraman ezazu asto hori giltzaperera!

LEONTZIO: Lucky geldi! Geldi!

LUCKY: Grrrrr.

Gorilek Arantza bultzaka eramango du. Leontzio lur jota dago, etsituta.

LEONTZIO: Lucky, denak eta bat ordainduko dituzu ...Oh! Arantza kartzelara daramate eta Ekidazu hankaz gora, zer egin dugu??

ZORTZI FAUSTOREN ITZULERA

Leontzio bakarrik dago eserita. Fausto agertzen da kantari, bere kanta xuxurlatzen.

FAUSTO: Lagunok! Lagunok! Iritsi da Fausto! *(Bere bostean)* Ez dakizue zenbaat kanta ekartzen dizkizuedan mundu osotik. Milaka abentura kontatzeko. Sole, Kirten, Arantza ...*(Harritu egiten da inor ez duelako aurkitzen)*. Non sartu ote dira...? Zer gertatu da hemen?

LEONTZIO: Fausto ezta?

FAUSTO: *(Goitik behera begiratur, ikuslegoari)* Eta hau nor da?

LEONTZIO: Ni Leontzio, Arantzaren laguna.

FAUSTO: Eta non dago bera?

LEONTZIO: *(Lepotik heltzen du eta bazter batera joaten dira)* Ataka estu batean. Kartzelan dago, Piztiagan.

FAUSTO: Nola? Ezin dut sinetsi. Arantza giltzapean?

LEONTZIO: Zera, Astonioren hilketa egotzi diote. Baina nik ez dut uste bera izan denik.

FAUSTO: Astonio hilik? Arantzak gainera? Mundua hankaz gora jarri dela dirudi kanpoan egon naizen tarte honetan...

LEONTZIO: Eskerrak etorri zarela. Ez nekien norengana jo. Gainera ...

FAUSTO: Zer?

LEONTZIO: Hilketarena.... Lepoa egingo nuke Luckyren amarru bat dela.

FAUSTO: Amarrua? Ba zer edo zer egin beharra daukagu...

LEONTZIO: Nik badut ideia bat. Baina asto guztien laguntza behar dugu.

FAUSTO: Hori utzi nire esku. Baina zer egin behar dugu?

LEONTZIO: Begira, Lucky apustuzale amorratua da, nik zirikatuko dut apustua egin dezan lortu arte eta horrela Arantza askatuko dugu, gero apustua irabazi behar dugu Ekidazu bere atzaparretatik libratzeko.

FAUSTO: Bai eta astoak zer?

LEONTZIO: Ba honetarako gaur ez da astorik lanera etorri behar, hori besterik ez.

FAUSTO: Hori egina dago!

Faustok alde egiten du.

LEONTZIO: (*Ikusleei*) Astoen laguntza bakarrik ez, zuena ere behardugu, beraz erne egon eta *abisatu* Lucky datorrenean.

Leontzio eskutatzen da.

BEDERATZI
AUKERA BAKARRA

Lantegiko sirena hotsa entzun da goizero bezala. Hala ere, ez da inor agertu. Lucky haserre dago, zain. Leontzio ezkutuan daga Lucky agertzen denean.

LUCKY: *(Haserre)* Baina zer da hau? Ez da inor ere ageri. Eta erlojuko ordubete igaro da.

LEONTZIO: Lucky ez alferrik itxaron. Gaur ez dira etorriko eta.

LUCKY: *(Sutan)* Ez direla etorriko? Garbitu egingo ditut denak! Larrutik ordainduko dute!

LEONTZIO: Nahi duzun guztia. Baina ez du inork zuretzat gehiago lanik egingo.

LUCKY: Eta zuk nola dakizu zuk hori?

LEONTZIO: Esan didatelako.

LUCKY: Zuri? Zu ez zara nor eta. Lantegi honetako nagusia neu naiz.

LEONTZIO: Asko balio du nagusi izateak menpekorik gabe.

LUCKY: Zer nahi dut ba, zital horiek!

LEONTZIO: Zureak egin du Lucky. Adio betiko.

LUCKY: Tira, hitz egin dezagun.

LEONTZIO: *(Ikuslegoari)* Mantsotzen ari da, segituan dator apustua.

LUCKY: Apustu batekin konponduko dugu hau.

LEONTZIO: Ikusten, amua irentsi du bete betan. Tira ba, bota!

LUCKY: Huts ala bete. Hil ala bizi Irabazten badut asto guztiak nire menpe izango dira, gau eta egun, gorputz eta arima. Eta zuk alde egingo duzu nire begien bistatik.

LEONTZIO: Eta galtzen baduzu zuk alde egin beharko duzu. Eta lantegia eta Ekidazu astoen esku geratuko dira.

Luckyk pentsakor hara eta hona egiten du. Gero, irribarre egiten du ideia on bat izan balu bezala.

LUCKY: Ongi da. Baina hauek dira baldintzak: Kirola, Piztistatic-a.

LEONTZIO: *(Ikaratu egiten da)* Piztistatic-a?

LUCKY: Eta nire lehiakidea, Goril Amstrong.

LEONTZIO: Munduko txapelduna?

LUCKY: Eta zer, zu lehiatuko zara astoen alde?

LEONTZIO: Badugu lehiakide egokiagoa bat. Arantza lehiatuko da gure alde.

LUCKY: Arantza? Ezin da!

LEONTZIO: Zer ba?

LUCKY: Arantza kartzelan dago.

LEONTZIO: Ba, orduan ez dago traturik, adio azeri!

LUCKY: Baina Arantza izan behar da derrigorrez?

LEONTZIO: *(Ikuslegoari)* Erantzun egiozue zuek. Baiiii!!

Lucky pentsakor geratzen da.

LUCKY: Ados. *(Barrez)* Ez duzue inolako aukerarik.

LEONTZIO: Hori bihar goizean ikusiko dugu. Maltzur hori. Bihar arte!
(Ikuslegoari) Azeri honek ez dakiena da Arantzak zuen

laguntzarekin kontaktzen duela ezta? (*erantzuna*) Hori da! animatu
gogor. Bihar arte!

HAMAR EGUN HANDIA

Ekidazuko plaza prest dago Piztistatic probarako. Saturren erretransmisioa jarraituz giroa aparta dela asma daiteke. Bi leihakideak agertzeaz daude.

SATUR Jaun andreok, ongi etorriak Ekidazuko plazara. Piztiktatic norgehiagoka ikusgarria izango da gaur hemen. Nor baino nor Piztiaga eta Ekidazu.

Atera dira lehiakideak: Alde batera Goril Amstrong entzutetsua eta beste aldera Arantza Kortazahar, Ekidazuko ihia!

Une batetik bestera hasiko da aproba. Prest jokalaria. Oihu batean jendea. Bat, bi, hiru!!! Hasi da aproba!

Une honetan portua igotzen hasiko dira. Gorili ez dio zirrararik egin.

Aurretik doa alde handiarekin.

Arantza atzetik ezin hautsiz.

Badirudi azken metro hauetan dezente argitu direla gauzak. Animaleko ahalegina egin du Arantzak baina ez du Goril harrapatuko. 500 metro falta dira helmugarako eta beste horren beste da lehiakide bien tartea.

Lucky agertzen da eszenan eta lehiaketa eta Saturren narrazioa moztuz Gorilengana hurbiltzen da ...

LUCKY: *(Arnasestuka)* Goril kendu paretik! Apustu hau nik neuk irabazi behar dut...

Honetaz ohartzerakoan Faustok (Leontzio izan daiteke) animoak ematen dizkio Arantzari ...

FAUSTO: Eutsi Arantza, ez etsi! Txikiak duen aukera bakarra eustea da, eutsi. Entzun hau *(Arantza egiten du)*.

Hori ikusirik musikaren indarra areagotu egingo da eta Arantzaren aldeko oihuak.

SATUR: Luckyk berak izan nahi du garaile! Berak dastatu nahi du garaipena! Baina, arazoak dituela dirudi, Arantza alde gutxitzen ari da. Une honetan, biak parez pare, EZ!!! Aurretik jarri da Arantza, berak irabaziko du. Bai jaun andreok Arantza sartu da aurretik helmugan, bera da garaile. Arantzak irabazi du lasterketa ...

ARANTZA: Aupa lagunok! Irabazi dut! Gora Ekidazu!!!

Arantzak irabazi duela ikusirik, Lucky harengana doa eta lepotik helduta

LUCKY: Oraindik ez astotxo, oraindik ez ...

ARANTZA: *(Itotzear)* Tximistak erreko al zaitu, Lucky barrabasa!!!

LUCKY: *(Barrezka)* Horixe bera esan zuen Astonio gaixoak zure egoera berean. Baina infernua dago orain...

ARANTZA: Orduan zuk hil zenuen Astonio!

LEONTZIO: Arrazoia duzu Arantza Luckyk bere burua salatu du, berak hil zuen Astonio.

LUCKY: A! Zer? Nik ez nuen...

Astonio agertuko da burua bendaturik.

ASTONIO: Saiatu zen astakideok, saiatu zen baina oker honek ez daki zein burugogor garen astook.

ARANTZA: Ba, bota dezagun azeri hau Ekidazutik. Alde hemendik Lucky.

LEONTZIO: Alde! Ekidazun ez dugu zu bezalakorik behar!

Luckyk alde egiten duenean

ASTONIO: Begira lagunok! *(Piztiagako pankarta erortzen da)* Gora Ekidazu! Ospa dezagun hau gure erara, arrantzaka!!!

DENAK:

Hau da Ekidazu
gogora zazu
asto musikari alaien aberria.
Hau da Ekidazu
sinets ezazu
bihotzean daramagu mundu berria

Hau da Ekidazu
entzu eidazu
dantzan eta kantan da gure alegria.
Hau da Ekidazu
heldu eistazu
baltsean helduko zaigu egunsentia.

FINI